



Basauri eta Etxebarriko enpresa txikiaren lehiakortasuna hobetzeko laguntzak

OINARRIAK

Laguntza deialdi honen xedea da Basauri eta Etxebarriko industrialdeetan kokatutako enpresen gaitasunak hobetzen laguntzea, krisiaren eraginei eta sortzen ari den agertoki berriari erantzun proaktiboa emateko. Egoera honetan, nahitaezkoa da balio eskaintza definitzea eta lehiakortasuna handitzen duten ardatzak sartzea.

1. Xedea eta helburua

Oinarri hauek Behargintza Basauri-Etxebarriko enpresa txikiaren lehiakortasuna hobetzeko proiektuak diseinatzeko edota /eta garatzeko emango diren laguntzak arautzen dituzte. Honako arlo hauetan eragitea da asmoa:

- Teknologia berrien erabilera enpresaren lehiakortasuna hobetzeko.
- Enpresaren jarduerak sortutako hondakinak berrerabiltzen dituzten jarduerak identifikatzea.
- Produktu edota zerbitzu berriak identifikatzea.
- Merkatu geografiko edo sektorial berriak identifikatzea.
- Jarduera batek (produktu edota zerbitzua) ekartzen duen edo ekar lezakeen balioa identifikatzeko eta ikusgarri jartzeko hausnarketa estrategikoak.
- Merkataritza ekintza hobetzea:
 - Eskaintza hobetzea.
 - Merkatu arlo berrientzako merkataritza-argumentarioak egitea.
 - Salmenta euskarri egokiak sortzea.
 - Merkataritza plangintza prozesuak.
 - Merkataritza bide berriak identifikatu eta aztertzea.
 - Enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzen duten beste jarduera batzuk.

2. Hartzaileak

Laguntzak eskatu ahal izateko, enpresak Basauri edo Etxebarrin izan beharko du helbide soziala, edo gutxienez ekoizpen instalazio bat eta, bestalde, 1. puntuari aipatutako arloetako batean aipatutako hobekuntza prozesu batean egon edo prozesuari ekin nahi dion enpresa izango da.



Banakako proiektuez gain, bi enpresa edo gehiagoren artean, aipatutako arloetakoren batean, lankidetzan sortutako proiektuak aurkezteko aukera ere badago. Gainera, lanbide heziketako ikastetxe baten edota zentro teknologiko baten parte-hartzea ere onar daiteke. Kasu horietan, proiektuaren liderra den enpresak eskatzailea Basauri edo Etxebarrin kokatuta egon beharko du.

3. Bete beharreko baldintzak

Erakunde onuradunek honako betekizunak bete beharko dituzte:

- a. 2017ko uztailaren 1a baino lehen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.
- b. 50 langile baino gehiago ez izatea eta Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 zenbakidun (EB) Araudiaren I eranskineko 2. artikuluan jasotako enpresa txikiaren definizioarekin bat etortzea.
- c. 2. eranskinean agertzen den zerrendan sartzen ez den jarduera ekonomikoren bat izatea (Salbuespena: txikizkako merkataritza, hurbiltasuneko zerbitzuak, zerbitzu profesionalak, ostalaritza).
- d. Foru Ogasuneko, Gizarte Segurantzako eta Basauri eta Etxebarriko udaletako zergak ordainduta izatea.
- e. Diru-laguntza publikoak lortzeko aukera ukatua ez izatea.
- f. Lan Arriskuen Prebentziorako 31/1995 Legeak eta, orokorrean, arriskuen prebentziorako legediak eskatzen dituen betekizunak beteta izatea.

4. Diruz laguntzekoa den egitatea eta zenbatekoa

- a. Diruz laguntzekoa izango da 1 puntuan adierazitako arloren batean enpresen lehiakortasuna hobetzeko 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra landutako proiektuen diseinua edo/eta garapena.
- b. Diruz laguntzen xede izan daitezkeen gastuak lotuta egongo dira proiektua diseinatzeko edo/eta garatzeko beharrezkoa den kanpo laguntza teknikoarekin.
- c. Proiektuei dagokienez, diruz laguntzeko gastuak 2017ko urtarrilaren 1etik 2018ko abuztuaren 31ra sortu eta ordainduta egon beharko dute.
- d. Ez dira diruz laguntzekoak izango:
 1. Inbertsioei dagozkien gastuak
 2. Softwareari, informatika lizentziei eta informatika ekipamenduari dagozkion gastuak



3. Web orriak egin edo hobetzeko eginiko gastuak
 4. Enpresako langileen barne lan orduei dagozkien gastuak
 5. Bidaia, dieta eta mantenuari dagozkien gastuak
 6. Balio Erantsiaren Zerga (BEZ)
 7. Eskatzailearen eta hornitzailearen artean lotura dagoeneko gastuak¹
- e. Kanpoko laguntza teknikorako hornitzailea laguntza jasotzen duen enpresak aukeratuko du Proiektuek diru-laguntza jaso ahal izateko, berauek burutzeko kualifikazio tekniko eta gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu ahal duten profesionalak gauzatuak izan beharko dute. Hori egiaztatzeko, arlo horietan burututako lanen zerrenda aurkeztu beharko da (gutxienez, lan horien datak, lana burutu duen profesionala, arlo horretan burutu duen lana eta bezero enpresaren izena).
- Era berean, proiektua gauzatzeko izendatutako profesionalen curriculum vitae ere aurkeztuko da.
- f. Diru-laguntzaren zenbatekoa kanpo laguntza teknikoaren gastuaren % 80 izango da, eta proiektu bakoitzeko gehienez 3.000 euro jasoko dira.
 - g. Enpresa bakoitzak deialdi honetan diruz lagundua izan daitekeen proiektu bakar batekin hartu ahalko du parte.

5. Eskaerak balioestea eta laguntzak ematea:

¹ Oinarri hauetan, pertsona fisiko edo juridiko edo nortasunik gabeko taldeekiko lotura dagoela pentsatuko da, honako inguruabar hauekoren bat ageri denean: a) Ezkontza-harremanaz edo halako afektibitate harremanez lotutako pertsona fisikoak edo senidetasunez lotutakoak (odolkidetasunean 4. gradura arte eta ahaidetasunean 2. gradura arte) b) Aldizkako ordainketa bidez ordaindutako lan harremana duten pertsona fisiko eta juridikoak. c) Diru-laguntzen Foru Arauaren 10. artikulua 2. atalak aipatzen duen onuradunaren bazkide izatea eta 3. atalak aipatzen dituen nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kide edo partaide izatea. d) Sozietate bat eta bertako bazkide maioritarioak edo aholkulariak edo administrariak, bai eta hauen senar edo emazteak edo halako afektibitate harremanen bat dutenak eta senideak (odolkidetasunean 4. gradura arte eta ahaidetasunean 2. gradura arte). e) Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluari jarraituz, talde berekoa izateko eskatutako inguruabarrak dituzten sozietateak. f) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko elkarteak eta honen legezko ordezkariak, patroiak edo administrazioa egikaritzen dutenak, bai eta ezkontza-harremanaz edo halako afektibitate harremanez lotutako pertsona fisikoak edo senidetasunez lotutakoak (odolkidetasunean 4. gradura arte eta ahaidetasunean 2. gradura arte). g) Lege, estatutu edo kontratu akordioaren arabera lehenengo onuraren ehuneko 50ean edo gehiagoan parte hartzeko eskubidea duten pertsona juridiko edo nortasunik gabeko elkarte eta pertsona fisikoak.

Ayudas / Dirulaguntzak

Inspiración para crear.
Cimientos para construir.
Energía para transformar.



Behargintza
Basauri-Etxebarri

Enpresak
elkarlanean

- a. Eskabideak balioesteko batzorde bat eratuko da. Batzorde hori Behargintza Basauriko Presidenteak, Koordinatzaileak eta Enpresa Saileko teknikari batek eratuko dute.
- b. Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Batzordeak oinarri hauen arabera ebaluatuko ditu eskaerak, eta ematearen proposamena igorriko du.
- c. Eskaeren balioespena egiteko, honako irizpide hauek erabiliko dira:
 1. Proiektuaren helburuaren definizioa (argitasuna, zehaztasuna, proiektua gauzatzeko definitutako denbora markoarekiko koherentzia) (0-10 puntu)
 2. Proiektua gauzatura lortu asmo diren emaitzen identifikazioa (neurketa irizpideen arabera itxaron daitezkeen emaitzen kuantifikazioa) (0-10 puntu)
 3. Fakturazioari eta enplegua sortzeari dagokionez, proiektuaren gauzatzeak ekar ditzakeen emaitzen zenbatestea (0-10 puntu)
 4. Proiektuak enpresari ekarriko dion berrikuntza (horrelako ekintzarik aurretik ezarri den; berrikuntzak egiteko hainbat modu hartuko dira kontuan: lan-metodologiak, barne prozesuak, eta beste batzuk) (0-20 puntu)
 5. Aurretik ere Behargintza Basauri-Etxebarri sustatutako jardueretan parte hartzea (0-10 puntu)
 6. Lankidetzan burututako proiektuak (beste enpresa, lanbide heziketako ikastetxe, unibertsitate edo zentro teknologiko batzuekin lankidetzan burutzeko proiektuak aurkeztea) (0-10 puntu)
 7. Proiektuak garapen jasangarriari ekarpenak egitea (0-10 puntu)
 8. Proiektuaren ezarpenean plangintza bat egotea (0-10 puntu)

Balitzko 3 mailatan irizpidea betetzen den begiratuta emango da esleipena: baxua, ezarritako puntuazioaren % 0, ertaina: % 50 eta altua % 100.² Gutxienez 50 puntu lortu beharko dira eskaera onartua izateko.

² Puntuazio parametroak:

Baxua: Irizpideak aipatzen dituen kontuak ez dira zehazten edo ez dira betetzen. Irizpidean ahalik eta puntuazio handienaren % 0. Ertaina: Irizpideak aipatzen dituen kontuak gutxienean betetzen dira. Irizpidean ahalik eta puntuazio handienaren % 50. Altua: Irizpideak aipatzen dituen kontuak zehazten dira eta maila handi batean betetzen dira. Irizpidean ahalik eta puntuazio handienaren % 100.



6. Ordainketa

Diru-laguntzak ordainketa bakar batean egingo dira, amaierako zuriketa aurkeztu eta eskatutako dokumentazioa egiaztatutakoan.

7. Eskabideak aurkezteko epea eta horien tramitazioa

- a. Behargintza Basauri-Etxebarri Basauriko Baskonia kaleko 1.goan duen egoitzan aurkeztuko dira eskabideak.
- b. Eskabideak jasota, behar bezala beteta ez daudela ikusiz gero, eskatzaileari jakinarazi eta hortik aurrera 10 egun balioduneko epea emango zaio falta den dokumentazioa aurkezteko, eta esango zaio horrela egin ezean eskabidea bertan behera geratuko dela.
- c. Eskabideak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 27an hasi eta 2018ko urtarrilaren 31an amaituko da, Behargintza Basauri-Etxebarri jendea artatzeko duen ordutegian.³

8. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Oinarri hauen 3. eranskinaren arabera Eskabide Txostena aurkeztuko da, eta ondorengo dokumentazioa ere bai:

- a) Eskabide orria, enpresaren ordezkari betetzen duen pertsonak sinatuta.
- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela adierazten duen dokumentuaren kopia.
- c) Proiektuaren deskribapena, 4. eranskinaren arabera, honako informazio hau jasotzen duena:
 - Proiektuaren izenburua
 - Helburuak

³ Arreta ordutegia: astelehenetik ostegunera 9etatik 13:30ak arte eta 15etatik 17etara eta ostiraletan 9etatik 13:30ak arte.

Ayudas / Dirulaguntzak

Inspiración para crear.
Cimientos para construir.
Energía para transformar.



- Parte hartzen duten enpresa edota erakundeak (sozietate-izena, izen komertziala, IFK, helbidea, jarduera)...
 - Proiektuaren helburuaren definizioa (argitasuna, zehaztapena, mugatutako denbora markoarekiko koherentzia)
 - Proiektuaren kronograma eta aurreikusitako faseak
 - Proiektua gauzatu lortu asmo diren emaitzen identifikazioa (neurketa irizpideen arabera itxaron daitezkeen emaitzen kuantifikazioa)
 - Fakturazioa eta enplegu sorkuntzari begiratuta, proiektuak ekar ditzakeen emaitzen zenbatespena
 - Proiektuak enpresari ekarriko dion berrikuntza maila (horrelako ekintzarik aurretik ezarri den; berrikuntzak egiteko hainbat modu hartuko dira kontuan: lan-metodologiak, barne prozesuak, eta beste batzuk).
 - Lege hausteengatik diru-laguntza publikoak jasotzetik salbuetsita ez egotearen zinpeko aitortpena.
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela adierazten duen dokumentuaren kopia.
- d) Baldin-eta Basauri edo Etxebarriko udalek aurretik diru-laguntzak eman badizkie, behar bezala zurituta daudela adierazten duen zinpeko aitortpena.
- e) Enpresa txikiaren betekizunak betetzen direla adierazten duen zinpeko aitortpena.
- f) Behargintza Basauri-Etxebarri E.M.ren hartzekodun fitxa, non enpresaren banku-datuak jasota datozen. Fitxa hori enpresaren fitxa dagoeneko finantza erakundeak zigilatuta aurkeztu beharko da.
- g) Beste diru-Laguntza batzuean gaineko zinpeko deklarazioa.(8. eranskina)
- h) Eskatzailearen ordezkari ahalmenaren fotokopia, Sozietateen kasuan, bai eta pertsona fisikoaren NAN edo lan baimenaren fotokopia ere.
- i) Kasua bada, pertsona juridikoaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

9. Onuradunen betebeharrak



Enpresa onuradunak konpromisoa hartzen du, era berean, Behargintza Basauri-Etxebarri burututako esperientzia honen emaitzen zabalkundea egiten laguntzeko.

Gainera, Behargintza Basauri-Etxebarri emandako laguntzen inguruan bere funtzioak egikaritzuz eskatutako informazio guztia eman beharko du enpresak.

10. Baliabide Ekonomikoak

Diru-laguntza hauek osatzen dituzten funtsak Behargintza Basauri-Etxebarri duen aurrekontuaren eskuragarritasunera mugatuta daude.

11. Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Diru-laguntzaren titularra den enpresak ezingo du jaso helburu eta xede berbera duen beste diru-laguntzarik.

12. Zuritzeko epea eta modua

Zuriketa aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da aurkeztutako proiektuaren egikaritzetik kontatzen hasita, eta, beti ere, 2018ko irailaren 28a baino lehen.

Proiektuaren amaierako zuriketarako, ondorengo dokumentu hauek aurkeztuko dira:

- a) Diruz laguntzekoak diren eta egin diren faktura edo gastuen agirien jatorrizkoak eta kopiak, eta dagozkien ordainagiriak, oinarri honetan adierazitako epean. Ez dira onartuko eskura ordaindutako fakturak.
- b) Proiektuaren zuriketa txostena, honako informazio hau jasotzen duena:
 1. Proiektuaren izenburua.
 2. Parte hartzen duten enpresa edota erakundeak (sozietate-izena, izen komertziala, IFK, helbidea, jarduera)...
 3. Proiektua gauzatuta lortu diren helburuak, eta hasieran planteatutako helburuei dagokienez izandako desbideratzeak, eta argudiatutako arrazoiak.
 4. Proiektuaren benetako kronograma eta gauzatutako faseak.
 5. Proiektua gauzatuta lortu diren emaitzen deskripzioa (neurketa irizpideen arabera itxaron daitezkeen emaitzen kuantifikazioa).



6. Fakturazioa eta enplegu sorkuntzari begiratuta, proiektuak ekar ditzaken emaitzen zenbatespena.
7. Proiektuak enpresarako izan duen berrikuntza maila.

Diru-laguntzen onuradun suertatzen diren enpresei zuritze txostenaren eredu emango zaie.

13. Datu pertsonalen babesa

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak agintzen duena betetzeko, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla. Behargintza Basauri-Etxebarri da fitxategi horren titularra eta arduraduna. Honek zure datu pertsonalak erabiliko ditu enpresei laguntzak emateko deialdi honetan parte hartzeko beharrezko dokumentazioa izapidetzeko.

Enpresen datuen trataeraren helburua da bi aldeen arteko harreman administratibo, fiskal eta kontabilitatekoa kudeatzea.

Edozein unetan fitxategian sartu, datuak zuzendu edo deuseztatzeko eskubidea egikaritu ahalko duzu Behargintza Basauri-Etxebarri, Baskonia kalea 1, 48970 PK Basauri (Bizkaia) helbidera idazki bat bidalita, basauri-etxebarri@behargintza-be helbide elektronikora mezu bat bidalita edo gure bulegoetara etorri eta nahi hori jakinarazita.

Behargintza Basauri-Etxebarri
2017ko azaroaren 27a